Oria eta *Zaldibia* dira Aramako udalerriko bi ibaiak. Ibaien ezkerraldean *Amondarain* ibaiak eratutako haranean kokatzen da Aramako herria, goierriko bihotzean. 1,3 m²-ko azaleran, Gipuzkoako udalerririk txikiena da, eta 169 biztanle ditu. Herritik populaziorik gabe kontrolatzen dira ibaiak.


Aramako herrigunea, Txaragañatik.



Mendizabal, Agerre eta Artsusga baserriak.

Aramako herrigunea, Troskaiturritik.

Aramako udal mugartearen lurrak goi-cenomanienseko/coniacense garaiko lurretan kokatuta daude, Gipuzkoako zona honetan bereizgarria den eta Angiozar-Olaberria failaren lparraldean oso hedatuta dagoen flysch faziesa eratuz. Fazies hau, 1.500 metrotik gorako potentzia duena, eskisto-ituxurako marga eta margo-kararriz osatuta dago, eta hauen artean kararri eta kararri hareatsuko maila desberdinak tartekatzen dira. Aramara sartzeko errepidearen ezpondetan flysch-aren estratifikazio bereizgarria ikus daiteke.



Flysch-ean sortzen den erliebe zelaitsu tipikoa.


Hirigunea leku ordekatsu batean kokatzen da.

Herri honetako lurralde benetan txikia da, 169 biztanle soilik dituelarik. Aramako erliebearen norabideren batean ikus daiteke, esate baterako, Oria ibaiaren egungo bidearen gainean altxata dagoen zelaigune bat, beharbada antzinako erliebe motaren bati dagokiona. Zelaigune honetan daude kokatuta, hain zuzen, hirigunea eta baserri gehienak. Azalearen labanketako fenomeno bitxiak ere ikus daitezke.


Oñarteko uhartea. Duela urte batzu irabiak ikusten ziren inguruetan.

Zonarik baxueneta, *Oria* eta *Zaldibia* ibaien ertzetan, flysch-a estaltzen duten aro kuaternarioko depositu alubialen banda bat dago. Depositu hauek potentzia aldakorra dute, baina zaila da 10 metroko lodiera gainditzea, eta legarrez eta harearri heterogeneoez osatuta daude. Material hauen gainean, ibaiaren ibilguak meandro bihurgunetsuak marrazten ditu. *Zaldibia* ibaiarenak duela urte gutxi desagertu ziren N-1 autobiaren eraikuntzaren ondorioz. *Oria* ibaiak, bestalde, bere ibilgua lur hauen gainean bitan adarkatzen du uharte bat sortuz. Uharte honen izena *Oñarte* da, eta oso-osorik Aramako udalerrian kokatuta dago.


Oria ibaian meandroa eta koaternarioko depositu alubialak.


Oria ibaia, Ibaresko errota eta errepideko zubia.

Hidrologiaren ikuspuntutik, Aramak bi ibai garrantzitsu ditu: *Zaldibia* edo *Amundarain* eta *Oria* edo *Errekaundi*, eta hauek udalerriaren zonarik baxuenean eta bazter batean kokatuta daude. Bi ibaiek udalaren muga eratzen dute. Hauez gain, Aramako lurraldean zeharkatzen duten beste errekak daude: *Artzabaltza* errekak, 2 km²-ko arrearekin, *Altzagamendiko* hegaletako urak biltzen ditu eta, Aramako hirigunetik iparraldetik igaro ondoren, *Oria* ibaian isurtzen da. *Artzabaltza* errekak bi ibaiadar txikien urak jasotzen ditu: *Legartegierreka*, *Gaintzarekin* muga duena eta *Basabeltzeko* erreka. Hauetaz gain hirigunetik hegoaldetik doan *Zaldierreka* errekastoa eta *Amundarainen* ibaiadarrak diren *Loitzagako* erreka eta *Muñoetaerreka* aipatzekoak dira.


Aramako industriak eta, atzealdean, Loitzagako errekatxoaren zuloa


Ordiziarako garai bateko bide nagusia, Zaldunbide edo Estrata izenarekin ezagutzen zena.

Landarediari dagokionez, bi area defini daitezke: gizakia iraunkorki bizi deneko zonetan, hau da, baserria kokatuta dagoen zonetan, belardiak eta labore atlantiarrak daude, zenbaitetan harizti eta baso misto atlantiar txikiekin tartekatzen direnak. Hegoaldeko eta goikaldeko alderdietan, jende gutxiago bizi diren eremuetan, haritza (*Quercus robur*), pinua (*Pinus radiata*) eta beste koniferen sail landatuak nagusitzen dira.


Aramako zelaiak.


Basabeltza, Aramako leku eta basorik zabalenetakoa.

Aramaren berri ematen duen lehen dokumentua 1399. urtekoa da, *Ordiziarekin* bat egin zuen urtekoa. Beste herri askok bezala, Koroari zegozkion eskubideak ordaindu ondoren 1615. urtean lortu zuen hiri titulua. Urte horretan *Altzaga*, *Gaintza*, *Legoreta*, *Itsasondo* eta *Zaldibiarekin* batera Oria Ibaiaren Batasuna (*Unión del Río Oria*) eratu zuen. 1682. urtean, Aramak Batasuna utzi eta Ordiziaren tutoretza eta babesera bihurtu zen. XIX. mendean, berriz, aipatutako Batasunera itzuli zen, bere 1845. urteko desegitea baino urte batzuk lehenago, eta ordutik aurrera udalerri independente gisa jarraituko du.


Aramako berririk zaharrena 1399. urtekoa da, Ordiziakin bat egin zuenean.


Zaldunbide. Orain urte gutxi arte, hau zen Ordiziatik Aramara allegatzeko bide nagusia...

Demografiari dagokionez, gaur egun bere 160 biztanleak adin-taldetan eskualdeen gainontzekoaren antzeko moduan banatuta daude, baina adin-talderik altuenen gehikuntza nabarmena ikus daiteke, adin-talderik baxuenen kalterako, hau da, landako udalerri txikietan komunak diren ezaugarriak dituen egitura demografikoa du: populaziorren zahartzea gertakari nagusi gisa, ijaiotza-tasaren beherapena eta segmenturik gazteenen emigrazioa.


...Etxeberriko lepoa gainditu ondoren, Estrata izeneko bideak zehar, hemira eramaten du.

Hala eta guztiz ere, Aramaren azpimarragarria da azken hamarkadetan egon den beherapen demografiko txikia, antzeko udalerrietan gertatu den bezala. Horren zergatia Arama eskualdeko hiri-zentroetatik oso hurbil dagoela da, eta horrek biztanleei bertan lan egin eta Araman bizitzen jarraitzeko aukera eman die. Bestalde, biztanleria eliza, udaletxea eta beste eraikinen batek osatzen duten hirigune txiki batean kontzentratuta dago. Populaziorren gainontzekoa baserrietakoa da, udalerrian zehar sakabanatuta dagoena.



Aramako biztanlegoaren eboluzioa azken mendean.


Ekonomi ihardueraik tamaina txikiko landako udalerri baten ezaugarriak betetzen ditu: okupatuta dagoen populazioa industria, zerbitzuak eta nekazaritzan banatuta dago, ordena horri jarraiki. Nekazaritza-azalera erabilgarria udalerriaren %42 da, eskualdearen batezbestekoa baino %9 handiagoa eta lurra lantzen duen populaziora rena baino %18 handiagoa. Hala ere aipatu beharra dago, populatzearen ezaugarriak kontuan izanik, egun-zatirako nekazaritzaren fenomenoak Aramako familien gehiengoa ukitzen duela.


Arrikrutzeko inguruetan, belardia pinuz inguraturik.

1858. urtean paper-fabrika bat ezarri bazen ere, industri establezimendu hauek egin zen, eta duela gutxi arte ez da horrelako besterik egon. Hori hala izanik ere, populazio aktiboaren gehiengoak sektore honetan egiten du lan. horretarako inguruko fabrika-guneetara bertaratuz (Ordizia eta Beasain batez ere).


Goikoetxeberriko karelabeo.

Ordenareari buruz, aipagarria da *San Martin parroki-eliza*, berriztatze asko jasan zituen ermita baten gainean eraikia. Hirigunean bertan *Apaizetxea* eta *Iriarte* baserria daude. Hirigunetik kanpo, *Iturriotz* baserria, arkitektura tradizionaleko eredu adierazgarria, eta *Mendizabal* baserria, Ama Birjinaren XIV. mendeko taila bat gorde izan duena, dira eraikinik azpimarragarrienak.


Ibaresko zubia.

Oria ibaiaren ertzean *Ibaresko errota* dago orain dik, tradizionalki Errege Bidetik (gero 1-Nazionala errepidea izan zena) Aramarako sarrera izan zen izen bereko zubitik oso hurbil. *Ibarestik* gora beste errota bat bazegoen, argindar zentrala izandakoa ere, baina bere aurriak desagertu ziren autobia eraiki zenean.

Alkarteko zubia.


Azkenik, *Alkarteko zubia* aipatu behar da. Arama eta *Ordizia* lotzen zuen bide nagusia zubi garrantzitsu honetatik igarotzen zen. Modu berean, *Altzaga*, *Gaintza* eta *Baliarraingo* bideak hemendik hartzen ziren.


San Martin elizako sarraila...


... eta urbedeinkatu ontzia.

AURKIBIDE TOPONIMIKOA

Abaliabarrena (AL)* E-3
Abaliagoena (AL)* E-3
Abarrotz C-2
Agarre (ITS)* B-1
Agerre C-3
Alestabeltza B-3
Alestazuri B-3
Aizeleku D-4
Aizputune C-3
Aldapa B-3
Alkarteko zubia B-3
Altzazelai D-3
Amundarain erreka B-C-3-4
Apaizatxea C-2
Arama (herrigunea) C-2
Aramako industrialdea B-3
Arizmendienea C-2
Arrikrutz C-3
Arrobi C-2
Artatolosa D-3
Artsuaga C-3
Artzabaltza (AL)* D-2
Artzabaltzako erreka C-D-2
Barrutiaundi D-3
Basabeltza C-D-2-3
Basabeltzerreka C-D-2
Basaberri C-3
Bengoetxea (ITS)* C-1
Eguzkialde C-2
Eguzkilore B-3
Errekalde (ITS)* B-1
Errekaundia A-B-1-2-3-4
Errezola (AL)* C-1
Ertzilla (AL)* E-1
Estrada B-2
Etxeberri B-2
Gaztañatxota D-3
Goena D-3
Goikoetxeberri D-3
Gure Ametsa C-2
Gure Kabi B-3
Hilerria B-2
Ibares B-2
Ibares berri B-2
Ibares errota B-2
Ibaresko zubia B-2
Iguru C-3
Iriarte C-2
Iturralde C-2
Iturriotz C-2
Izagirre (ITS)* A-1
Jauregi B-2
Jauregietxeberri B-3
Kalbariobaso C-3
Kale Nagusia C-2
Kanpos C-4
Kanposenea (ITS)* C-1
Kanposgoena C-4
Karobizuloa D-3
Lartegia C-D-2
Legartegi D-2
Legartegierreka D-2
Lezkari C-1
Loitza pilotalekua B-C-2
Loitzaga C-3
Loitzagabekoa C-3-4
Loitzagagoikoa C-3
Loitzagako iturria C-3
Lukusain (ITS)* A-2
Makinetxea B-2
Malkarra C-2
Malloa B-2
Mendiola (AL)* E-1
Mendizabal C-2
Mugatu D-4
Mugatubarrena D-4
Mugi D-3
Muñoa B-3
Muñoeta (ZAL)* D-4
Muñoetako erreka D-34
Oiangoiti D-2
Oñarte A-B-2
Oñarte kulturetxea C-2
Orcli C-4
Oria ibaia A-B-1-2-3-4
Ostadar B-2
Otamendi* B-1
Perutxo B-3
San Juan ermita (ITS)* A-2
San Juan erreka A-2
San Martin eliza C-2
San Miguel eliza (AL)* E-1
Sorabilla (ITS)* C-1
Tellerialde C-2
Toki Alai C-2
Tomasbaso D-3
Troskaiturri C-1
Txara C-2
Txirribisoto D-3
Txaragaña B-2
Udaletxea C-2
Usunbillaga (OR)* B-4
Usunbillagako garadia D-3
Zabale (OR)* A-2
Zaldibia erreka B-C-3-4
Zaldibiabarrena (ZAL)* C-D-4
Zaldierreka B-2
Zaldunbide B-3
Zelaitxoalde C-1



ARAMAKO KOKAPENA EUROPAN, EUSKALERRIAN ETA GOIERRIN



IKURRAK

- Autobidea
- Eskualdeko errepidea
- Tokiko errepidea
- Beste errepideak
- Kotxeentzat bideak
- Baso-pista nagusiak
- Baso-pistak, oinezko bideak
- Udalerriko muga
- Erreka
- Iturria
- Ubidea
- Zubia
- Ur depositua
- Etxea, baserria
- Eliza, ermita
- Eroritako etxea
- Etorkizuneko eraikina
- Herriz kanpoko eraikina
- Herriz kanpoko eraikina (eroritakoa)
- Altuera kota
- Leku edo eraikin interesgarria





Aramako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

ORDENAMENDU TERRITORIAL, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE
Dirección de Ordenación del Territorio

IkerMap

arama

herriko mapa


ABARROTZ


AGARRE


AIESTABELTZA


AIESTAZURI


APAIZETXEA


ARIZMENDIENEA


ARTSUAGA


EGUZKIALDE


EGUZKILORE


ETXEBERRI


GOIKOETXEBERRI


GURE AMETSA


GURE KABI


IBARES ETA ERROTA

IBARES BERRI

IRIARTE

ITURRIOTZ

JAUREGI

JAUREGIETXEBERRI

KALE NAGUSIA

MENDIZABAL

OSTADAR

PERUTXO

SAN MARTIN ELIZA

TOKI ALAI

UDALETXEA

ARAMAKO MAPA
© Aramako Udala • 1. argitalpena: 1999ko ekaina
1/5.000 eskala • UTM koordenatuak
Sestrakurren distantzikidetasuna: 2,5 m

Egilea: IkerMap, Kartografia eta Lurralde Ikerketak
Lanaren arduradunak: Imanol Goikoetxea
Normalizazio toponimikoa: Aitor Lete eta I. Goikoetxea
Lege Gordailua: SS-402/99